

## Ameriketako tradizioa gurera ekarriz

*Beti bide zailenetik*  
Topeka.

Gaztelupeko Hotsak.  
Autoekoizpena. 10 euro.



HERNANI aldeko Madarikatuak taldeko kide izandako Goio Matarranzek urteak zeramatzan slide gitarra jotzen ondo ikasi eta doinu amerikarreko talde bat egin nahian. Bada, kantuak idatzi eta prest izan zituenean Topeka taldea eratu eta entseguekin hasi ziren. Hemen daukagu beraien estreinako lana, eta dagoeneko zuzenean aurkezten hasiak dira. Nik neuk sorpresa handia hartu dut, taldearen izena Euskal Herriko folkarekin gehiago lotzen nuelako.

Folketik eta estilo puruetatik asko du talde honek, baina AEBetarikotik: bluegrass, rocka eta countrya, hain zuzen ere. Eta ez da ohikoa gitarrak eta detaileak hain zainduta duen halako diskorik hemen entzutea. Kantu ia guztiak euskaraz dira, txantxa eta kontu serioak uztartuz, eta taldea sendoa izanda ere, besteak beste Tapiak eta Arkaitz Minerrek ere parte hartu dute. ■

[www.myspace.com/topekagrupo](http://www.myspace.com/topekagrupo)

### TOPEKA | GOIO MATARRANZ

## «Koruei garrantzi handia ematen diet, eskola zaharrekoa naizelako»

“Itsaso usaina neure barruan, ontziratuko naiz hurrengo marean”. Norantz, AEBetarantz?

Konposatzeko onena bidaiatzea da, leihoak zabaltzen dizkizulako. Musika amerikarra oso gustukoa dut: gitarrak, soinua, slide-a... 1994an egonaldia egin nuen indioen erreserba batean eta lehen dobroa erosi nuen.

Gaur jakin dut Topeka Kansaseko hiriburua dela.... Zergatik aukeratu duzue?

Emazteari bururatu zitzaion. Euskarazko hitza da eta Kansaseko hiriburua ere bada. Izen indioa da eta “patatak lantzeko leku ona” du esanahia. Topekadaka bizi gara.

“Etendako ahots batek ez du kanta hau kantatzen”. Zer lortu dezake kantu batek?

Kantuak ez du ezer aldatuko, baina nire barrua baretuko du. Gaur egun, edozer ikusita ere, ez gaitu ezerk mugiarazten.



Topekaren marka dira “uuuu” koru horiek. Garrantzitsuak dira?

Bai, koruei garrantzi handia ematen diet, eskola zaharrekoa naizelako. Batzuek esaten didate 1960ko hamarkadako eragina dela, eta hori pozgarria da.

Aldizka irteten dira “Aldizka” moduko hitz inspiratuak?

Aldizka erraldoi bat izan nahiko nuke... baina azkenean pozik egon beharko gara garenarekin. Euskaraz hitzak egitea dezente

kostatzen zait, euskaldunberria naizelako.

Grabatzerakoan, detaile guztiak buruan zenituzten edo bidean batzen joan dira?

Buruan neukan guztia. Kolaboratzaileak ere aspaldi nituen pentsatuta: Tapiak eta Arkaitz Miner, eta oso oso pozik gaude; bata cajuna jotzeko duen moduagatik eta besteak biolinarekin ia negarrak sorrarazi zizkidalako.

“Jei jou iupi ia ei iepa iepa ia”. Euskanglish karaokea?

Grabaketaren bezperan bururatu zitzaidan, Euskal Herrian agurrak egiteko modu asko ditugulako; eta horiek batu genituen.

Zer dute blues, country eta folk moduko soinu puruek?

AEBetatik txipa aldatuta etorri nintzen, konturatu nintzen estiloen esentziara jo behar nuela eta slide-arekin saltsatzen hasi nintzen. ■

